



ASTIGARRAGAKO EUSKAL ESKOLA

Mirasol egoitza behea

===== EUSKADIKO EDARI NAZIONALAREN ATZETIK ... EUSKARAZ ! =====

Askotan entzuna da, Euskal Herriko edari nazionala sagardoa dela. Ez dakigu hala izango den edo ez. Bakarrik dakigu, sagardoaren atzetik jende pilo bat dabilela. Eta sagardotegietan sagardoa txotxetik edateko ohitura hortan dabilen jende gehiena, GAZTELERAZ mintzatzen dela. Edo hobeto esanda, sagardotegietako giroa ez dela EUSKALDUNA.

Astigarragan, Hernanin eta inguruko herri-auzoetan txotxetik sagardoa edateko garaia irixten denean, ohizko ez den halako mugimendua nabaritzen da sagardotegietan : Jendea nonnahi, berebilak presaka, txuletak, bixiguak, triki-tixak, noizean behin baten bat bertsoetan eta ... taldetxo bat edo beste EUSKARAZ mintzatzen. Gehienak ... GAZTELERAZ.

Sagardotegi gehienak baserrietan kokaturik daude - nola ez, nagusi euskaldunak - baina sagardotegietan dabilen jendearen mintzaera gaztelera dugu eta giroa lehen esan dugun bezala EZ EUSKALDUNA, eta honekin batera ere sagardotegietako ohiturak baztertzen eta galtzen.

Baten batek bultzatu beharko du euskara sagardotegietan, ... Euskal Eskolek?, ... kultur taldeek ? Honi buruz eta adibide bezala esan beharra daukagu, orain dela bi urte hasita, geuk, Astigarragako Euskal Eskolakoak, kanpaina batzuen bidez orritxo batzuek ipintzen ditugula bertako sagardotegietan, sagardoaz, euskal jo-koetaz, eta aurten bertsoari buruz jarriak ditugu, guzti honekin zeregina duen EUSKAL TXOKO baten beharra aurkitzen garelarik Astigarragan.

Nola ez, sagardogintzak bere hiztegitxo berezia badu, Euskal Herriko "lan-ofizio" gehienak bezala, eta hortikan hitz^{zk}erabilienak jakitea ere komenigarria izango zaigunean gaude.

Gure proposamena baten batek ongi ikusiko duen itzaropenez, hemen doakizue Astigarragako sagardotegietan jasotako hitz batzuk, nola ez, sagardogileek bere egunoroko lanean noiznahi erabiltzen duten hitzak dira.

... / ...